

27/2021 ebazpena
22/2018 espedientea

Gasteizen, 2021eko abenduaren 20an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak, Sofía Arana Landin batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatuta, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean BFAk) Zerga Administrazioako Estatu Agentzian (aurrerantzean ZAEA) planteatu eta Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen den gatazkari buruz (3/2014 espediente-zenbakia).

I. AURREKARIAK

1. Espedientetik ondorioztatzen da gatazka hau sortzen duen eztabaidaren xedea dela zehaztea zein Administrazioak duen eskumena itsasontzi batean zerbitzuak ematen dituzten langileei dagozkien lan pertsonalaren etekinen PFEZren konturako atxikipenak ordainarazteko.

2. Gai hori Arbitraje Batzorde honek ebatzi zuen 2018ko ekainaren 28ko R6/2018 Ebazpenean, 13/2015 espedienteari buruzkoan, eta Auzitegi Gorenak berariaz deklaratu zuen zuzenbidearen arabera zela. Auzitegi horrek, 2019ko urriaren 4ko 1.319/2019 epaian (Errek. zk.: 411/2018), ezetsi egin zuen epaiaren aurka ZAEAk jarritako errekurtsua.

3. Arbitraje Batzordearen ebazpen hark, AGk berretsitakoak, Bizkaian helbideratutako sozietate batek egindako tributu-kontsulta ebatzi zuen; aipatutako sozietateak ordainsariak ordaintzen zizkien beren lana Murtzian egoitza-portua zuen itsasontzi batean garatzen zuten langileei. Kontsulta planteatu zen jakiteko zein Administrazioari (ZAEAr edo BFAr) ordaindu behar zitzaizkion PFEZren konturako atxikipenak, itsasoko langile horien ordainsariei zegozkienak. Arbitraje Batzordeak ondorioztatu zuen itsasontzia atxikita zegoen egoitza-portuari zegokiona zela administrazio eskuduna, eta, efektu horietarako, itsasontzia lantokitzat hartzen zela.

Ildo beretik, abenduaren 28ko 10/2017 Legeak ere –R6/2018 Ebazpena eragin zuen gatazka jarri ondoren emana–, Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluari idazketa berria (gaur egun indarrean dagoena) eman zionean, tripulatzailea atxikita dagoen lantokiaren lurreko kokapenean oinarritu zuen Ekonomia Itunaren hutsune historikoa betetzeko irizpidea, itsasoko langileen atxikipenak ordainarazteko eskumenari dagokionez; izan ere, aipatutako aldaketan oinarritzen da eskumen horren gainean gaur ematen dugun ebazpena.

4.- Eskatu da gatazka hau 13/2015 espedienteari buruz 2018ko ekainaren 28an emandako R6/2018 Ebazpenaren efektuak zabalduz bideratzea, irmoa baita.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsitako Ekonomia Itunaren 66.Bat.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Arbitraje Batzorde honek eskumena du Estatuko Administrazioaren eta Foru Aldundiaren artean planteatutako gatazka hau ebazteko, PFEZren (tributu itundua) konexio-puntuen aplikazioari buruzkoa baita.

2.- Ekonomia Itunaren 68. artikulua, abenduaren 28ko 10/2017 Legeak gehitu zuenak, Arbitraje Batzordearen "prozedura berezi" gisa arautzen du, besteak beste, "efektuak zabaltzea".

Horiek horrela, Arbitraje Batzordearen ebazpen irmo bidez lehendik ebatzitako beste auzi baten zergati bera duen gatazka bati buruz Arbitraje Batzordean gatazka bat aurkeztu duenak gatazka hori ebazpen irmo horren efektuak zabalduz ebatz dadila eskatu ahal izango du.

3.- Akreditatuenez gatazka honetan hori eskatu dela eta Arbitraje Batzorde honen iritziz argi dagoenez bertan sortzen den auziaren eta 13/2015 gatazkan bideratutakoaren zergatia bera dela, eta kontuan izanik gatazka hori 2018ko ekainaren 28ko R6/2018 Ebazpenak ebatzi zuela eta ebazpen hori irmoa dela, bidezkoa da R6/2018 Ebazpenaren efektuak zabaltzea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU:

1.- Ekainaren 28ko R6/2018 Ebazpen irmoaren (13/2015 espedienteari buruzkoaren) efektuak gatazka honetara ere zabal daitezkeela adieraztea, eta, horrenbestez, ondorioztatzea itsasontzi batean egindako lanaren etekinengatik PFEZren konturako atxikpenak ordainaraztea itsasontzia atxikita dagoen egoitza-portuaren lurraldeko Administrazioari dagokiola, Administrazio horren lurralde-eremuan kokatutako lantoki batean emandako zerbitzuetatik eratorritako atxikpenak direlako.

2.- Jarduketak amaitutzat jotzea eta artxibatzea.

3.- Ebazpen hau ZAEARI, Bizkaiko Foru Aldundiari eta zergapekoari jakinaraztea.